

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Jauregiak Aralarko Aingeruaren bisita jaso du 90 urte betetzen dituen ospakizunean

Foru Gobernuako kideak izan dira bertan, Barcina Lehendakaria buru zela

Miércoles, 15 de abril de 2015

Nafarroako Jauregiak Aralarko Aingeruaren bisita jaso du asteazken honetan, irudiak Pazko-egunaren ondorengo astean zehar Iruñean egiten duen ibilbidearen esparruan.

1925. urtetik egiten den ospakizuna 11:00etan hasi da, eta Foru Gobernuako kideak izan dira bertan, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina buru zela; harekin batera izan dira ehun bat pertsona, langile publikoak gehienak.



Aralarko Aingerua, prozesioan, Barcina Lehendakaria eta Gobernuako kideak alboan dituela.

Irudia Nafarroako Jauregiko ate nagusira heldu da Aralarko santutegiko kapilau laguntzaile Jesús María Sotil-ek zeramala Nafarroako Ereserkiaren doinupean, eta bildutako jende guztia bertan zegoen, zain.

Handik kaperaraino eraman dute prozesio-desfilean, eta errege-eskailerak nahiz oin nagusiko galeria zentralak zeharkatu ditu, armen erregearekin, mazolariekin eta kandelak eramaten dituzten alguaziltxo zuzi-eramaileekin. Haien atzetik, Gobernuako kideak eta gainerako guztiak joan dira.

"Nafarroako Erreinuaren Babeslea"

Prozesioa kaperan amaitu da, eta bertan eukaristia egin da Santiago Cañardo Ramírez Iruñeko San Nicolás elizako parrokoaren eskutik.

Bere homilian, apaizak, San Migel "Nafarroako Erreinuaren babeslea" kalifikatu du, eta gogora ekarri du Teodosio de Goñiren kondaira Jainkoaren laguntza eskatzeko "herensugearen



Gobernuako kideak, eukaristian.

zelatak" berrien aurrean, esaterako: " Injustizia, elkartasun eza, desberdintasuna, ustelkeria edo gizakiaren bizitza eta duintasunarekiko begirune eza".

Santiago Cañardok ere bere nahia azaldu du "karitateak, justiziak eta bakeak" politika gida dezaten "botere-nahia, anbizioa eta harrokeriaren" ordeztu; hala, "gero eta gizarte justuagoa eraiki ahal izango da".

Mezaren amaieran, bertaratuek Aingeruaren irudia daraman "lignum crucis" erlikia gurtu dute eta, prozesioan berriz ere, jauregiko ateraino lagundu; leku horretan bertaratuak eta Nafarroa guztia bedeinkatu dira.

Musika

Ospakizunaren musikaz Iruñeko katedraleko Musika Kapera arduratu da, Aurelio Sagaseta maisuaren zuzendaritzapean, eta Julian Ayesa organo-jotzailea izanik.

Ondorengo piezak interpretatu dira: Lalanderen 'Cantate, cantate'; Mozart-en 'Kyrie eleison'; 'Sancte Michael'; 'Alleluia'; Wagner-en 'Adoro te devote'; 'Sanctus'; Casciolini-ren 'Panis angelicus'; 'Or zaude Jesus', eta 'Mikel', 'Mikel guria' eta 'Aqur Mikel Aingeru' kopia herrikoiak, irudia quartu bitartean interpretatuta.